

Udaberri doinuak

Apirileko kultur egitaraua prest da; gaur, besteak beste, J&K taldea ▶ 2



Harpidedunei banatua ▶ Ostirala ▶ 2006-04-07 ▶ IV. urtea ▶ 857. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Shisha Pangma: Goikoetxearen, Aizpururen eta Jouberten jomuga

TOLOSALDEA ▶ Maiatza hasieran egin nahi dute zortzimilako gailur hori ibartarrek eta alegiarrek ▶ 6



Unai Aizpuru eta Jon Goikoetxea ibartarrak; Manu Joubert alegiarra falta da argazkian. I. TERRADILLOS

JOSEBA TAPIA ▶ MUSIKARIA

«Jotzeko eta kantatzeko hainbat gai daude»

'Real Politik' bere hurrengo diskoaren lanak eskainiko ditu gaur Villabonan ▶ 4



Joseba Tapia. I. GARCIA

TOLOSA ▶

Voith-Gorostidiko eraikuntza planaren behin betiko oinarriak

Toki babeseko 290 etxebizitzaren baldintzak zehaztu ditu Udalak ▶ 3

LEITZALDEA ▶

Eskualdeko 14 musikari Satur Eletako finalean

Bihar lehiatuko dira, Lekunberrin ▶ 7

IKAZTEGIETA ▶

Kiroldagiko zerbitzuak berriro erabil daitezke

Bi hilabete iraun dute lanek ▶ 5

Udaberria zure esku

Bidatzeko, irakurtzeko eta musikaz gozatzeko garaia da. Udaberri honetan, kultura eta aisialdi guztia zure esku **elkar megadendan**

elkar elkar ezagutzen dugutako

BAIONA · BERGARA · BILBO · DONOSTIA · GASTEIZ · IRUN · IRUÑEA · TOLOSA

www.elkar.com

KULTURA ▶

Udaberri doinuak... eta beste

Kultur ekitaldien eta jardueren eskaintza zabala egin du Udalak apirilera ere; hilero bezala, herriko kultur gune ezberdinetan emanaldiak, erakusketak, kontzertuak eta zine-kluba izango dira, batik bat

NOELIA LATABURU

Hilabetero bezala, kultur ekitaldien eta jardueren eskaintza zabala egin du Tolosako Udalak. Ikastaroak, erakusketak, musika ... Aste Santuen oporraldia tartean izanagatik askotariko ekintzak izango dituzte herritarrek, apirila bukatu bitarte, aukeran. Gaur, esaterako, kontzertu berezia izango da Aranburun; izan ere, Xabier Zeberio tolosarrak joko du Alos Quartet laukotearekin. Bestalde, hainbat ikastarori hasiera emango zaio, gehienak ere Kultur Etxean. Bonbereneakoe ere ekitaldi ugari antolatu dituzte, guztietan ere musika protagonista izango da.

Hona hemen apirilean herriko kultur gune ezberdinetan izango diren ekintzen zerrenda, banan-banan zehaztuta:

ERAKUSKETA

Enrique Zaldúa. Iragan martxoaren 16an inauguratu zuen Zalduak *Poesia mugikorra* bere pintura erakusketa Aranburu Jauregian. Barne bidaia «atsegina» proposatzen du egileak, bihotzeko ateak ireki ahal izateko. Hil honen 22ra arte izango da ikusgai; arratsaldero bisita daiteke erakusketa, astelehenetan eta jaiegunetan izan ezik, 17:30etik 20:30era.

Angela Mejias - Antonio di Bellonio. Gaur inauguratuko dute, 19:30ean, Aranburu Jauregian, *Hezigaiztasunaz eta poesiaz* argazki erakusketa. Hala, maiatzaren 5era bitarte izango da ikusgai.

Iñaki Olazabal. Iñaki Olazabalen eskultura erakusketak osa-



J&K; ezker-eskuin: Gorka Otamendi (bateria), Garikoitz Arabolaza (gitarra eta ahotsa), Nerea Erbiti (trikitia eta ahots nagusia), Itsaso Etxebeste (baxua eta ahotsa) eta Nerea Urbizu (teklatura eta ahotsa). I. ETXEBESTE

tzen du Aranburuko eskaintza hilabete honetan. Hil honen 28an inauguratu eta maiatzaren 27ra bitarte egongo da.

MUSIKA

Alos Quartet. Bakarkako lehenengo diskoa iaz grabatu ondoren, Tolosan estreinakoz ariko da Xabi Zeberio tolosarraren Alos Quartet laukotea, gaur, 20:00etan, Aranburu Jauregian. Alos Quartet 1999an sortu zen Euskal Herrian, Et Incarnatus ganbara orkestraren baitan. Hasiera batean, diskoa grabatzeko garaian, Inazio Alkain zen taldeko biola-jolea, baina orain Ricardo Cuendek ordezkatu du. Xabier Zeberio

tolosarrak, Francisco Herrero eta Pello Ramirezek osatzen dute banda.

Aita Garaioa eta Musika Eskolako Orkestra. Gaur kontzertua eskainiko dute Santa Klara elizan, 20:30etik aurrera.

Desordutan eta J&K. Bonbereneako taula gainean ariko dira bi taldeak, 22:30etik aurrera. J&K boskote euskalduna —lehen Irailera 6 izenarekin ezagutuak— lehen aldiz joko du Tolosan. Beraz, Gorka Otamendi bateria etxean ariko da, Itsaso Etxebeste (Belauntza), Nerea Urbizu (Lekunberri), Nerea Erbiti (Leitza) eta Gari Arabalazarekin (Oiartzun) batera. Plaza taldea dira, baina

ska doinuak lantzen dituzte, batik bat.

Iker Goenaga. Bihar Iker Goenaga zizurkildarrak emanaldia eskainiko du Bonberenean, 22:30ean.

Deskontrol eta Los DryHeavers. Bonberenean hil honen 14an, Ostiral Santuarekin, bi talde hauen musika izango da entzungai, 22:30etik aurrera.

Gaztetxe Martxa. Hil honen 25ean, berriz, Bonbereneako Txaranga herriko kaleetara irtingo da Gaztetxe Martxa.

Vikingo MD. Bonbereneako eszenatokiak hartuko du Sevillako (Espainia) talde honen kontzertua, 22:30etik aurrera, hilaren 28an.

Skalariak. Skalariak taldeak osatuko du hil honetako kontzertu bilduma Bonberenean; izan ere, 29an joko dute, 22:30etik aurrera.

ZINE-KLUBA

'La dama de honor'. Claude Chabrol zuzendariaren *La dama de honor* filma izango da ikusgai, Kultur Etxean, 21:30ean, hil honen 20an.

IKASTAROAK

Natura jardunaldiak. Hil honen 24tik 28ra bitarte, naturari buruzko jardunaldiak antolatu ditu Naturgintzak. Kultur Etxean garatuko dira.

Komiki ikastaroa. Hilaren 28an, ostiralarekin, Tolosako Gazteria eta Berdintasun Sailak antolatu duen komiki ikastaroa hasiko da. Izen-ematea 24an amaituko da, 20 euroren truke.

Sabel dantza ikastaroa. Sabel dantzaren ikastaroaren hasiera hil honen 29an. Informazio gehiago 943 67 37 30 telefono zenbakian.

BESTELAKOAK

Poesia emanaldia. Patxi Zubizarreta idazleak poesia emanaldia eskainiko du, hil honen 28an, Aranburu Jauregian. Hitzordua 20:00etan izango dute interesatuek.

'Gorakada Titirikontukontari'. *Gorakada Titirikontukontari* txotxongilo emanaldia izango da Kultur Etxean, hilaren 29an, larunbatekin, 17:30ean.

Ipuin kontaketa. Hilaren 21ean, ostiralarekin, bereziki 5 eta 8 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako ipuin kontaketa izango da Errotan, 12:00etan.

KULTURA ▶

Laskorain Gazte Abesbatzak Asturiasera egingo du irteera, bertako talde batekin trukea eginez

Gaur abiatuko dira Luancora (Espainia), igandera arte; bi kontzertu eskainiko dituzte bertan

N. LATABURU

Laskorain Gazte Abesbatzak asteburu berezia du aurretik. Izan ere, gaur Asturiasko (Espainia) Luanco herrira abiatuko dira, bertako Los Peques

Leon de oro abesbatzarekin trukea egiteko. Bertan bi emanaldi eskainiko dituzte, bihar arratsaldean eta etzi goizean. Guztira, 35 umek osatzen dute abesbatza, 10 eta 14 urte bitartekoak, eta bakoitzak bere

errepertorioa duen arren, kanatu bat bi abesbatzek batera abestuko dute, *Siya Hamja* izeneko pieza afrikarra, hain zuzen ere.

Besteak beste, *Nere herriko neskatxa maite*, *Lau teilatu*, *Lili*

eder bat, *Lanzen und springen* (alemaniarra) eta *akarramanla* (afrikarra) abestiak eskainiko dituzte.

Trukearen ekimen honen bitartez, datorren urtean Los Peques Leon de oro abesbatzako

partaideek egingo dute bisita gurrera.

Aisialdirako astia

Turismorako tartea ere izango dute tolosarrek, zonaldeko hainbat leku ezagutu ahal izateko. Gijonen (Espainia) hartuko dute ostatu, kanpinetan eta etxetoetan; hala, igande gauean egingo dute buelta. Ez da honakoa Tolosako abesbatzak egiten duen lehen irteera. Bartzelonan egon baitira noizbaita, besteak beste.

KIROLA ▶

Aste Santuetan Sierra Nevadara mendi irteera

Aste Santuetako 5 egunetarako Sierra Nevadara (Espainia) mendi irteera antolatatu du Oargi mendi elkarteak. Lehenengo egunean, hilaren 13an, Tolosatik irten eta Capileirara (alpujarra) joango dira. Hurrengo hiru egunetan, berriz, Mulhacen (3.479 metro) eta Veleta (3.396 m.) igoko dituzte. Azken egunean, 17an, berriro Tolosara itzuliko dira. Informazio gehiago nahi duenak 637 83 03 80 telefonora dei dezake.

POLITIKA ▶

‘Errepresiorik ez, herri presioa bai’, kontzentrazioa

Errepresiorik ez, herri presioa bai lelopean, kontzentrazioa egin zuten asteazken iluntzean Trianguloan. Ezker abertzaleak eskualde mailan deitutako mobilizazio honek Batasuneko Arnaldo Otegi, Juan Mari Olaneta eta Juan Joxe Petrikorenaren egoera salatzeari zuzen helburu. Ezker abertzalearen ustez, «PNVk eginiko txostenei esker, kartzelan daude». PSOeri adierazi nahi diote «gatazka errepresio ez dela bideratzen».



Triangulo plazan asteazkenean egindako kontzentrazioa. E.EZEIZA

HEZKUNTZA ▶

Hirukideko ludotekan izena emateko aukera

Aste Santuak jada gainean direla eta, Hirukidek antolatutako ludoteka zerbitzuetan izen emateko epeak irekita daude dagoeneko. «Haurren aisialdia aberasteko asmoz», joko, tailer eta dinamika ezberdinak antolatutako dituzte egun hauetarako Hirukidekoek. Ekintza hauek guztiak euskaraz gauzatu dira. Honela, izena eman edo informazio gehiago jaso nahi duenak 943 67 39 48 zenbakira dei dezake.

HIRIGINTZA ▶

ESTI EZEIZA

Tolosako Udalak aurreko hileko 28an egindako Osoko Bilkuran, Voith-Gorostidi eremuko toki babeseko etxebizitzaren erregimen juridikoa arautzeko eta etxebizitza horiek adjudikatzeko behin betiko oinarriak onartu zituen.

Ingurune horretan, denara, 675 etxebizitza eraikiko dituzte. Hauetatik, 290 toki babesekoak edo tasatuak izango dira. Beste 250 libreak, eta azken 135ak babes ofizialekoak. Prezioei dagokionez, lehenengok, 105 metro karratukoek, 192.000 euro inguru balioko dute, hau da, 32.000.000 pezeta. Baina, honez gain trastelekua eta garaia ere eskatzen badira, 4.000.000 pezeta gehiago ordaindu beharko dituzte interesatuek. Gainontzeko bizitzaren salneurriak berriz, zehaztu gabe daude oraindik.

Udalekoen esanetan, «oraindik data jakinik ez dago, proiektu bati buruz ari baikara hitz egiten», baina aurreikuspen bezala, datorren urtean hasiko dira eraikuntza lanak, eta lehenengo etxebizitzak 2008aren amaierarako prest egotea espero da.

Guztira, mila bat pertsona inguru interesatu eta joan dira udaletxera, kontsultak egiteko. Hauetatik %60, hau da, gehien-go, 25-35 urte bitarteko gazteak izan dira. Bestetik, hurbildutako %86 Tolosan erroldatua zegoen, eta %78ak ez zuten etxebizitzarik jabetzan.

Babes ofizialekoak

Babes ofizialeko etxebizitzak lortu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dituzte interesatuek: Etxebiden behar den bezala alta emanda egotea eta 2003ko urtarrilaren 1etik Tolosan erroldatua egotea.

Baldintza hauek betetzen ditzuten gain, aukera ere izango dute, baldin eta Etxebideko Eskatzaileen Erregistroan alta emanda egonda baina 2003ko urtarrilaren 1ean Tolosan erroldatuta ez daudenek, Tolosan 15 urtez bizi izan badira.

Toki babesekoak

Eskatzaileek 2003ko urtarrilaren 1etik Tolosan erroldatuta egon beharko dute toki babesetako etxebizitzak lortu ahal izateko, eta udalerrian 15 urtez bizi izandakoak izan. Honez gain, oinarrietan agertzen diren egoera partikularretan ez ezik, eskatzaileek ez dute izan behar ez etxebizitza baten jabetzarik ez lurrazal eskubiderik edo usufekturik. Era berean, diru sarrera hauek egiazta beharko dituzte: gutxieneko 12.000 euro eta gehieneko 43.000 euro. Tramite hauetarako kontutan hartuko diren datuak 2005eko zergaldiko ekitaldiari dagozkion izango dira.

Izen-ematea

Toki babeseko etxebizitzak esleitze eskakizunak udaletxean aurkeztu beharko dira. Honetarako epea maiatzaren biamirekiko dute eta irailaren 30ean itxi, biak barne hartuz. Inprimakia eta dokumentazioa udaletxe Erregistroan entregatu beharko da, baina laguntza nahi izanez gero txanda eskatu beharko dute 943 69 74 91an, edo www.tolosakoudala.net en ipiniko den aurrez ordua eskatzeko sistema bidez. Aurre txanda sistema hau hilaren 24tik aurrera martxan jarriko da.

Urbanizazio hitzarmena

2005eko uztailaren 7an egindako osoko bilkuran hainbat

Eraikuntza planaren behin betiko oinarriak erabaki dituzte

675 etxebizitza eraikiko dituzte Voith-Gorostidi eremuan; 290 izango dira toki babesekoak eta 135 babes ofizialekoak



Voith-Gorostidi eremuaren urbanizazio proiektuaren argazkia. LEIRE MONTES

hirigintza proiektu eztabaidatu ondoren onartu zuten Voith-Gorostidi eremuaren urbanizazio hitzarmena. Proiektu honen arabera, bi enpresak Appataerrekako lurretara lekualdatuko dira. Jokin Bildarratz alkatearen orduko esanetan arabera, «proiektuaren helburua herriko enpresak babestea eta sustatzea, eremuko herritarrei bizileku berria ematea, eta utzita zegoen eremua berreskuratzea da».

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta. «Zer egiteko asmoa duzu Aste Santuko oporraldian?: Hondartzara joango naiz; mendian txangoak egingo ditut; herriak eta hiriak bisitatuko ditut; ahaideak, lagunak... bisitatuko ditut; besterik...» Animatu eta bozkatu!

iragarki laburrak ▶

LANA
Tabernaria. Neska bat behar da igandetan tabernan lan egiteko. Telefonoa: 943 65 20 24.
[12:30etik aurrera deitu.](http://www.lana.com)

SALGAI
Zaldia. 4 urteko zaldi Burguetea salgai, Aralar mendikoa. Telefonoa: 670 20 85 43.

JOSEBA TAPIA ▶ MUSIKARIA

«Jotzeko eta kantatzeko hainbat gai daude»

Joseba Tapia trikitilari eta abeslariak kontzertua eskainiko du gaur, 22:30ean, Villabonako Gurea aretoan

IMANOL GARCIA

Joseba Tapiak (Lasarte, 1964) kontzertua eskainiko du gaur, 22:30ean, Villabonako Gurea aretoan. Kontzertu berezia izango da, oraindik grabatu ez duen hurrengo diskoaren —*Real Politik* du behin-behineko izena— abestiak kantatu eta joko baititu. Ondoa izango ditu Jexux Aranburu (teklatuak eta akordeoia) eta Arkaitz Miner (zapatak, mandolina eta bi-bolina). Testuekin laguntzen ohiko kolaboratzailea duen Koldo Izagirre idazlea aritu da. **Zer aurkituko du gaur Gurea aretora doanak?**

Bakarkako hurrengo diskoa prestatzen ari gara. Disko horretarako egindako kantuak jo eta abestuko ditugu, kolore askotarikoak. Zenbait kontzertu eskaintzen ari gara abesti horiekin, ikusteko nola funtzionatzen duten, zer erantzun jasotzen dugun. Diskoa irail inguruan argitaratuko dugu.

Ez da ohikoa diskoa grabatu aurretik abestiekin kontzertuak ematea.

Lehen aldia da hori egiten duguna. Gertatu izan zaigu diskoa atera eta gero, kontzertuak ematerakoan, aldaketa batzuk egiteko gogoia sartzea. Aurretik kontzertuak egitea interesantea da. Gero diskoa gusturago, seguroago prestatzeko aukera emango digu.

Nola eragingo diote kontzertuek abestiei?

Batez ere barrura begirako aldaketak izango dira, gauza teknikoak: abiadura, arregioak... Entzuleengandik jasotako erantzunak eta kritikek ikusten laguntzen dute nola funtzionatzen duten abestiek, pisutsua edo arina diren, esaterako.



I. GARCIA

Nola definituko zenuke prestatzen ari zaren diskoa?

Bi bide bereiztuko nituzke nire ibilbidean. Bata Tapia eta Leturia bezala aritzen garenean. Udako erromeriei gehiago lotuta dago bide hori, dantzarekin lotura duena. Bestea, bakarka ateratakoak dira. Literaturaagoak dira eta kantuak protagonismo gehiago dauka. Kantuen diskoak izaten dira.

Bakarkako diskoetan gai konkretu bat jorratu ohi duzu, Quebec-i buruzkoa, kasu. Horrela da honetan ere?

Kantuak ez dira gai konkretu bati buruzkoak. Lotura bat bada, gai sozialak jorratzen di-

tugu, baina kantu solteak dira. Lehengo eta oraingo idazle batzuen testuak hartu ditugu eta baita bertsiotzeko ere.

Hainbat urte daramatzazu musikaren munduan. Zerk motibatzen zaitu lanbide horretan jarraitzeko?

Gauza askok Jotzeko eta kantatzeko hainbat aukera eta gai daude, eta horiek musika egiten jarraitzea bultzatzen naute. Hainbat letra irakurtzerakoan horiek musikatzeko gogoia etortzen zait. Instrumentuarekin ere jotzeko eta esperimentatzeko gogoia izaten dut. Ez dakit nondik datorren gogo hori, baina ez da joaten.

ZIZURKIL ▶ ANTZERKI ASTEA

Antzerkiaren magia ekarri du Eriz magoak

Bederen 1 taldeak 'Ahulkiak' antzezlanaren eskainiko du gaur Atxulondo kultur etxean



Eriz magoak, laguntzaile eta guzti, atzo, Gurea aretoan. I. GARCIA

I. GARCIA

Magiak hartu zuen atzo Zizurkilgo Antzerki Astea. Eriz magoak ikuskizun ederra eskaini zuen Villabonako Gurea antzokian, ikasle eta irakasleentzako.

Gaurko emanaldia Bederen 1 Kultur Elkartek eskainiko du, 20:00etan, Atxulondo kultur etxean. *Ahulkiak* izeneko obra antzeztuko du. «Aulkia. Ez da egongo beste altzari bat gizakiaren antza handiagoa duenik», diote antzerki taldeko obraren aurkezpenean.

«Aulki elektrikotik hasi eta bizarginaren aulkira, erregeen tronutik hasi eta behia jezteko erabiltzen den banketatxora, geltokietako aulki nahiz ospitaleko itxarongeletako eserleku plastikozko, badira mila eta bat aulki. Askotan, ordea, indarra zurrupatu ere egiten digu aulkia, ahulki bilakatzeko dela, alegia, eta bertan esertzen dena, patuaren mende dagoen desanparatu». Ikuspegi hori aintzat hartuta, Bederen 1 taldeak antzezlari interesgarria taularatuko du gaur arratsaldean.

ASTEASU ▶ KIROL ASTEA

Judo erakustaldia gaur arratsalderako

Asteasuko Kirol astearen baitan gaur judo erakustaldia egingo dute frontoian, 19:00etan hasita. Asteasun bertan ikasten ari direnez eta bere irakasleez gain, beste herri batzuetatik etorritakoak ere erakutsiko dute judoaren hainbat giltza eta ariketa. Eta, bihar, 09:00etan hasita, Eskola Kirola Eguna egingo dute. Zizurkil eta Asteasu arteko futbol partidarekin hasiko da eta ondoren hainbat kirol praktikatu dituzte. Asteasuko Pello Errota eskolan egingo dituzte ekitaldi guztiak.

ANOETA ▶

Tren Berdean bidaiatzeko irteera

Alkartasuna Biltokiak Irungo Tren Berdean bidaiatzeko irteera antolatu du hilaren 27rako. Tximeletaren museo bisitatzeko aukera ere izango dute. Elkarteko kideek 23 euro eta ez direnek 26 euro ordaindu beharko dute (bazkaria barne dago). Izen-ematea Alkartasun.

ANOETA ▶

Pazko Asterako ludotekan izena emateko aukera

Anoetako Udak Pazko Asterako ludoteka antolatu du. Bi deialdi egin ditu: batetik, parte hartu nahi duten haurrentzat, eta bestetik begirale lanetan aritu nahi dutenentzat. Interesatuak, bai batean eta bai bestean, gaur dute azken eguna izena emateko.

Zuloaga & Gureak-en zure landarea dago.

Maite, Gorria, Edurne, Ane, Ander, Ohana, Laura

“Zatuz gure instalazio berriak ezagutzera eta zure landarea aukeratzeko orduan edo eta zurekin gehien dituan loraintza proiektu hori aurrera eramateko behar duzun aholkularitza izango duzu.”

Ramón Zuloaga (Zuloaga & Gureak-eko Gerentea)

943 556 109 - Iparralde bidea z/g. 20014 Astigarraga. Futbol zelaiaren aurrean.

ZULOAGA & GUREAK
zure konfidantzazko gardena

BIDEGOIAN ▶

Bainu-etxe batera joateko epea zabalik dago

Termalismo programarekin jarraitzen dute Bidegoianen: 12 egun bainu-etxe batean egoteko aukera zabaldu dute beste behin. Pentsionista izan beharra da honetaz baliatzeko, eta eguneroko beharretarako arazo fisiko zein psikikorik ez izatea ere ezinbestekoa da. Iraitetik abendura bitarte joan ahal izateko epea zabalik dago maiatzaren 16a arte. Gizarte zerbitzuetan informazio gehiago eskura daiteke, eta hurrengo telefono zenbakira deituz: 943 68 11 28.

ALEGIA ▶

Zuluetaren koadroak hilaren 21a arte

Jesus Lopez Zulueta beasaindarrak bere erakusketa Alegiako jubilatuen tabernan jarri du, eta hilaren 21a arte egongo da ikusgai. Bere koadroak handiak dira, kutsu abstraktoarekin, eta orokorrean gaiak folkloreakin daude lotuta: dantzariak, kirolak... Klase handiko lanak dira denak.

AMEZKETA ▶

Euskararen aldeko sinadurak gaurtik hasita

Bai eskolak euskalduntzeari kanpainaren barne, Amezketa sinadurak bilduko dituzte egun hauetan, Euskal Herri osoan bideratu duten proiektuaren barne. Zumadi eskolan gaur izango da hitzordua, 16:30ean. Bihar eta etzi, herriko taberna aurrean egongo da sinatzeko aukera, tabernak izaten dituen ordutegi beretsuari jarraituz.

GUTUN@K ▶

Xabier Gordo ez dago errolatuta

Gezurrak hanka motzak ditu. Horrela laburtu liteke Xabier Gordo goiaztarra zela zioen 2005eko azaroko titularrak eta bere anaia Pedrok errolatuta zegoela zionaren baieztapena, pasa den martxokoa. Bidegoiandarrok jakin badakigu Xabier Gordo Castro ez dela

IKAZTEGIETA ▶ HIRIGINTZA

Kiroldegia dagoeneko erabil daiteke

Astelehenetik aurrera zerbitzu guztiak martxan jarriko dira, bi hilaren ondoren



Kiroldegirako sarrerak itxura txarra zuen obren aurretik. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Ikaztegiatiko kiroldegian egin beharreko obrak amaitu berri dituzte. Hilaren 10ean obrak egin bitartean etendurik egon diren zerbitzuak berriz ere martxan jarriko dituzte. Beraz, astelehenetik aurrera posible izango da kiroldegian dauden zerbitzu guztiak erabilitea. Hala, «egin beharreko konponketa guztiak Udalak emandako daten barruan» burutu dituzte.

Obren zergatiak

Kiroldegiko teilatuak hainbat arazo eman zituen neguan zehar, itokinak geroz eta handia-

goak ziren eta. Horren ondorioz, mediku gelarako sarbidea sarritan urez gainezka egoten zen, hara joan behar zen jendeari arriskua eraginez.

Bestalde, bigarren solairuan eskaintzen ziren beste zerbitzu batzuk ere kaltetuta zeuden: KZgunea eta liburutegia, esaterako.

Otsailaren 6an hasi zituzten obrak, eta bi hilabetez egon dira lanean. Bi hilabete hauetan frontoia bera, KZgunea, liburutegia, medikuaren zerbitzua eta Gizarte Langilearen bulegoa ezin izan dituzte erabili herritarrek, azken bi hauetarako Alegiakoez joan behar izan dutelarik.

izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

inoiz bizi izan Bidegoianen, eta errolatuta egon ez dela argitzen duen herriko idazkariaren ziurtagiria ere jarraian igortzen dut. «Udal errolaren kudeaketa informatizatua 1981. urteko martxoaren lehenengoz gerotik ondorioztatzen denez, Gordo Castro Xabier jauna ez da inoiz udalerrri honetako biztanle errolan inskribaturik egon».

Gutun honen asmoa ez da

polemikarekin jarraitzea, baina bai egia jakinaraztea.

Bidegoiandarrek eta Gordo sendiak jakin badakite udal honetako ateak irekita dituztela, nahi dutenean alkatearekin edo bertako zinegotziekin egoteko eta hitz egiteko, eta udal taldearen borondatea herritarrei laguntza eskaintzea eta arazoak konpontzen saiatzea dela.

JUAN UGARTE ▶ BIDEGOINGO ALKATEA

GIZARTEA ▶

Donejakue bidea egiteko prestaketak hasiak dira

Santiagora joateko bidea antolatzen hasi da jada Tolosaldeko turismo bulegoa

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko turismo bulegoan Donejakue bidea egiteko prestaketak ere hasi ditu. Turismo-informazio orokorra emateaz gain, Donejakue bideko bulegoa martxan jartzeko azken prestaketa-lanak burutzen ari dira. Horretarako, Donejakue Bideko Adiskideen Elkartearen laguntza dute.

Azken hilabeteotan, lan talde batek programa bat egin du, eta laster emango dute horren berri. Ondorengoek osatu dute lan-talde hori: Tolosaldeko Udalak, Tolosaldea Garatzenek, Santa Mariako adiskideek, Donejakue Bideko Adiskideen Elkarteak eta hainbat tolosarrek.

Aurrerapen moduan esan daiteke Donejakue Bideko bu-

legoa ireki behar dutela. Honetan, aukera dago kredentziala eskuratzeko, eta bideaz eta alojamenduaz argibideak eta aholkuak jasotzeko.

Donejakue Bidea egiten ari direnei orain bulego honetan zigitatuko diete kredentziala. Horretarako, bere zigitua izango du —Tolosako irudi monumentalak jasotzen du—: Andre Maria parrokoa, Nafarroako Zubia eta Errota.

Bihar, larunbata, jarriko dute martxan bulegoa, 10:00etatik 13:00etara bitartean. Helbide hau du zerbitzu berriak: Andre Maria, 1. Tolosa.

Ondorengo egunetan adieraziko dute zer jarduera daukeden prestatuta Donejakue Bidea Tolosan bertan ikusi eta ezagutzeko.

VILLABONA-ANOETA ▶ EHNA

EHNA egiteko aukera asteburuan egonen da

N. URBIZU

Bai Euskal Herriari herri ekimenak Euskal Herriko Nazio-tasun Aitormena egiteko aukera zabalduko du beste behin, bihar, Villabonako Kultur Etxean.

Hori posible izango da 11:00etatik 13:00etara, eta

16:00etatik 18:00etara. Herriko 400 pertsonak dute jada.

Anoetan ere aukera egongo da egiteko: etzi, 11:00etatik 14:00etara, udaletxera jo behar da.

15 euro, errola —udaletxean eskatu beharrekoa— eta 3 argazki behar dira horretarako.

AGUS IN-ENER JARITZEN

Gosari bereziak • Kaxuelak
Ogitarteko bariatuak
Plater konbinatuak
Pintxo aukera

OHARRA: menuak enkarguz
Euskalerrri plaza, 6 • TOLOSA
Tel.: 943 65 10 59

OSTATUA

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu
Tel.: 943 67 15 48

ELOLA ALTZARIAK

- Etxeko altzariak. **bede**
- Ordenagailuz egindako proiektuak. Tel.: 943 65 29 01
- Armairu enpotratuak neurritan. Lizardi poeta, 2

lo egiteko eta atsedean hartzeko omena **TOLOSA**

KIROLAK ▶

IÑIGO TERRADILLOS

Abentura berri bati ekitera doaz Jon Goikoetxea *Boli* eta Unai Aizpuru ibartarrak eta Manu Joubert alegiarra, Shisha Pangmarako espedizioa, hain zuzen. Iaz McKinley gailurra igotzeko elkar-tu ziren hiru mendizaleak, eta «esperientzia paregabea» izan zuten, errepikatzea erabaki dute. Espedizio honetan, Sarasola anaia ordiziarrek, Koldo Huegun usurbildarra, Karlos Gonzalez gasteiztarra eta Willy Bañales bizkaitarra izango dituzte bidelagun.

Atzo jarri zen Goikoetxea Katmandurako bidean. Everest igoko duten beste kideekin izango da han materiala-eta prestatzen. Berak ere, Shisha Pangma igo ondoren animoz eta indarrez ondo aurkitzen bada, Everest igotzeko asmoa du. Etzi abiatuko dira gainontzekoak, eta Txinako Nihalan herrian izango dituzte zain. 4.000 metroko garaieran dagoen herri horretan 3 edo 4 egun emango dituzte, eta bertako klimara egokitu eta inguruan dauden 5.000 metroko pare bat gailur egingo dituzte, «berotzen hasteko». Ondoren, batzuk Everesteko bidea hartzen duten bitartean, Shisha Pangmara abiatuko dira besteak.

Goikoetxearentzat hirugarren 8.000koa izango da, Lhotse eta Everest igoak baititu. Aizpuru, aldiz, lehendabiziko 8.000koa igotzen saiatuko da, eta «ilusioz» dago erronka berriaren aurrean. Mendiari dagokionez, «oso polita eta gozatzeko modukoa» dela eta ez duela zailtasun handirik azaldu dute mendizaleek. Hori bai, igoera iparretik denez hotza egingo duela diote, gailurra igotzeko garai onena izan arren.

Gailurrerako bidean

Lehendabiziko 15 egunak oinarritzko kanpalekuan (6.400 metro) emango dituzte, klimara egokitzen eta bigarren (6.900 metro) eta hirugarren kanpalekua (7.400 metro) muntatzen. Dena prest dutenean eguraldi egokia noiz egingo duen egongo dira zain gailurrera bidean jartzeko. Oxijenorik gabe abiatuko dira orduan 8.027 metro egin arte. Aizpururen kasuan, Huegunekin batera eskiekin egiten saiatuko da 3. kanpalekurarte, «horrela, beharokoa ere eskiak erabili ahalko ditugu»; handik gora, tontorrerarte, oinez egingo dute. Gainontzekoek, oinez egingo dute hasieratik. Maiatzaren 3an edo 4an espero dute mendizaleek Shisha Pangmarekin egitea.

Hurrengo erronka: Shisha Pangma

Goikoetxea eta Aizpuru ibartarrak eta Joubert alegiarrak 8.027 metroko gailurra igotzeko espedizioari ekingo diote



Ezker-eskuin: Jon Goikoetxea *Boli* eta Unai Aizpuru ibartarrak, eta Manu Joubert alegiarra. I. TERRADILLOS

Aurkituriko azken zortzimilako gailurra



8.027 metroko garaiera du Shisha Pangma mendiak. HITZA

Mendeetan sanskritoko *Gosainthan* (Santuaren lekua) izenarekin ezagutua izan da. Tibetar izena, hau da, Shisha Pangma izan da, ordea, iraun duena. Bere esanahia belar gaineko lautadak mendean hartzen dituen gailurra da.

Zortzimilako gailurretan azkena zen, eskalatzeko gertzen zen bakarra, eta txinatarraren interesa piztu zuen. Gainera, gailurra Tibetean egonik, eta garai hartan Txinari zegokionez, hura eskalatzeko debekatu zuten. Hala, 1963. urtean txinatarrak espedizioa burutu zuten, eta 7.160 metro-tara iritsi ziren. Hurrengo urtean beste txinatar talde bat berriro saiatu, eta gailurra egitea lortu zuten.

Egun, gailur honetara igotzeko 10 ibilbide desberdin daude eginak. 14 zortzimilako-arten baxuena eta errezentariokoa dela esan daiteke, eta Tibeteko paisai zoragarrietan kokatua dagoela kontuan izanda, bertan egiten diren espedizioek gorakada handia izan dute azken urteetan, eta gehien igotzen den laugarren zortzimilakoan bilakatu da. ◀

IBARRA ▶

Langostinok irteera antolatu du hilaren 30ean

Ibarrako Langostino Moto Kultur Elkarteak 180 kilometro inguruko irteera antolatu du hilaren 30ean. Irteerarekin batera, hamaiketako ere egingo dute egun horretan. 6 euro ordaindu beharko dira izen emateko, eta horretarako 670 41 79 15 (Moski), 658 75 15 91 (Tximas) edo 636 40 31 70 (Ander) telefono zenbakietara hots egin beharko da.

IBARRA ▶

Iratxera irteera antolatu du Bizi Nahi-k

Bizi Nahi jubilatuko elkarteak Iratxera irteera antolatu du biharko. Irantzuko monasterioa eta Lizarra bisitatuko dituzte, eta bazkalostean dantzaldia eta bingoa izango dute. Izen-ematea elkartearen bertan egin ahal izango da.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostia-ko autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarano autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675885
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

MUSIKA ▶

Bertako 14 musikaririk joko dute Satur Eleta txapelketako finalean

Guztira 27 parte-hartzailerekin, bihar egingen dute jaialdia Aralar musika eskolak antolatuta, Lekunberriko 31 aretoan

JAIONE ASTIBIA

Satur Eleta I. Musika Txapelketaren finala bihar bertan egingen dute Aralar musika eskolako ikasleek. Azken proba honetan, sarien bila doazenak, guztira 27 hautagaitza dira; hauetatik 13 Leitzako eta Aresokoak, 14 musikari izanik.

Martxoaren 11n egin zituzten sailkapen probak Aralar musika eskolako ikasleek, orotara 80 ikasle, epaimahaiko kideen aurrean. Orain jendarean egingen duten ekitaldian ebatziko dituzte irabazleak, sailka-sailka: bihar larunbata, Lekunberriko 31 aretoan, 17:00etan hasiko den jaialdian izanen da hori.

Finalista bakoitzak urtean zehar landu duen musika-tresnarekin, bina pieza defendatuko ditu: bat mailaren eta tresnaren arioren antolakuntzak ezarri eta derrigorrezkoa izanen dena; bestea, norberak au-

LEITZA ETA ARESOKO PARTE-HARTZAILEAK ▶

BAKARLARIAK

8-9 urte bitartekoak.

Izena	Tresna
1. Oinatz Mariezkurrena	bateria
2. Manex Moreno	pianoa

10-12 urte bitartekoak.

Izena	Tresna
1. Lierni Sestorain	trikitixa
2. Uxue Mutuberria	trikitixa
3. Miren Zuñiga	bistua
4. Garazi Erbiti	gitarra
5. Estibx Otermin	akordeoia

13-15 urte bitartekoak.

Izena	Tresna
1. Zuriñe Goikoetxea	pianoa
2. Olatz Alduntzin	trikitixa
3. Oier Otermin	gitarra elektrikoia
4. Edurne Juantorena	gitarra

16 urtetik gorakoak.

Izena	Tresna
1. Joanes Osanbela	bateria

BIKOTEAK

12 urtetik gorakoak.

Izena	Tresna
1. Maite Lazkano/ Oihane Kalderon	zeharkako xirula

keratutakoa. Edozein moduz, banatu dituzten kategoriak, bakarlariek, bikoteek eta hirukoteek izan dira, eta bakoitzean adin tarte desberdinak, «horrela, tresna desberdinen arteko lehia ahalbidetuz», antolatzaileen esanetan. Jaialdian zehar «8 musika-tresna des-

berdin joko dituzte gure ikasleek», zehaztu zuten.

Aralar musika eskolako ikasleentzat presatutako txapelketa da, aurrenekoa: «Ikasleen motibazioa dugu helburu, doinuak prestatzeko eta ikasteko garaian helburu bat izatean». Bihar entzuteko aukera dago.

LEITZA ▶ HEZKUNTZA

Haur Eskolan ireki dute aurre-matrikulazio epea

Hilaren 28a arte egin daiteke izen-ematea; hiru ordutegi mota jarri dituzte aukeran

ERREDAKZIOA

Heldu ikasturtean, 2006-2007an alegia, beren haurrak Leitzako Haur Eskolara eramane nahi dituzten gurasoei aurre-matrikulazioa egiteko tenorea iritsi zaie. Horretarako epea zabalik dagoela iragarri du Leitzako Udalak.

Hiru ordutegi mota jarri dituzte aukeran kasu honetan. Batetik, 6 ordukoa dago: goiz eta arratsalde, 09:00-13:00 eta 15:00-17:00 banatuta eta jangelarik gabe. Bestetik, 4 ordukoa: goizetik bakarrik, 09:00-13:00 bitartekoa. Eta azkenik, 7 ordukoa: kasu honetan 08:00etatik aurrera, jarraian egonen lirake haurrak zentroan, jangelako zerbitzua barne delarik.

Jangelarako gutxienez 20

Zehaztu dutenez, beti ere, «jangela zerbitzua emateko, 20 hurreko gutxieneko kopuruak» eskaera egin behar omen luke. Bestalde 4 orduko eskaintzari dagokionez ere, Udalak eskariaren arioren erabakiko omen du martxan jarri edo ez.

Matrikula tasei dagokienaz, «errenta tartearen arioren»

ezarrita daude tarifak. Haur bat baino gehiago matrikulatuta dituzten gurasoek murrizpenak izanez.

Hil honen 28a arte egin daiteke izen-ematea, Haur Eskolan bertan: 12:00etatik 13:00etara edo 15:00etatik 17:00etara bitartean. Une horretan bestelako agiriak ere aurkeztu behar direla argitu dute: gurasoen «lanaren edota ikasketen egoeraren egiaztagiria; familiako kideen frogagiriak; errenta mailaren frogagiriak; bizileku edo lantokiaren hurbiltasun frogagiria», besteak beste.

Haurrari lekua esleitzeko garaian, oinarrietan ezarrita dituzten lehentasunen baremoa erabiliko dute, arestiko agiri horietaz baliatuz, hautagai bakoitzaren puntuaketa lortzeko. Horren arioren behin betiko matrikulaketa egingen dute, maiatzetik aurrera.

ZUZENKETA ▶

Atzoko egunkarian, Gazte Topagunearen aurkezpenafaria gaurko iragarri genuen. Bada, bihar, larunbata, hilak 8, egingen dute. Barkatu eragozpenak.

LEITZA ▶ POLITIKA



Konponbideari ekiteko bildu dira Leitzan

J. Astibia ▶ Elkarretaratzea egin zuten herenegun iluntzean hainbat lagunek, Euskal Herriari bizi den gatazka politikoren konponbidearen alde, era berean errepresioaren aurkako jarrera azalduz. J. A.

hilerria ▶

Juanita Etxezarreta Izeta



Eta hego haizeak eramango nauen egunean
Itzul ezazu ene gorpua sorterrira,
Ehortzi itsasertzeko adiskideen hiliban,
Gogo oneko jendez inguratirik

Agur, amona

DONOSTIA, 2006ko apirilaren 7a

hilerria ▶

Tomas Etxabe Etxabe



Izan zarenagatik
eta erakutsi diguzunagatik
ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Ama eta senideak

Hileta elizkizuna, GAUR, ostirala, arratsaldeko ZAZPIETAN izango da, ZUMIAIKO SAN PEDRO APOSTOL parrokiari.

ZUMAIAN, 2006ko apirilaren 7a

hilerria ▶

Tomas Etxabe Etxabe

Itsas uhinekin dantzan
mendi gailurretan hegan
izan haize, izan kresal
gero arte, osaba.

Ilobak

Hileta elizkizuna GAUR, ostirala, arratsaldeko ZAZPIETAN izango da, ZUMIAIKO SAN PEDRO APOSTOL parrokiari.

ZUMAIAN, 2006ko apirilaren 7a

▶ hilerriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 eixetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



AGENDA ▶

ANTZERKIA

Zizurkil. Harkaitz Cano idazlearen *Ahulkiak* antzezlanaren eskainiko dute, 20:00etan, Atxulondo kultur etxean. Antzerki Astearen barruan.

DEIALDIK

Alegia. I. Bertso Paper Lehiaketako A mailako (16 urte arteko gazteak) sariak San Juan herri ikastetxean banatuko dituzte. Zazpi astoren gainean bertso eskolak antolatuta.

Anoeta. Javier Sarasa txistulariari omenaldia. 19:00etan, elizan.

Asteasu. Judo erakustaldia egingo dute herrian bertan ikasten ari diren gazteek zein irakasleek, eta baita beste herri batzuetatik etorritakoek ere. 19:00etan, frontoian. Kirol Astearen barruan.

Ibarra. Langostino Moto Kultur Elkarteak 180 kilometro inguruko irteera antolatuta du hilaren 30ean, igandea.

Hamaiketakoarekin 6 euro izango dira. Izen-ematea, 670 41 79 15 (Moski), 658 75 15 91 (Tximas) eta 636 40 31 70 (Ander) telefono zenbakietan.

Leitza. Gazte Topagunearen aurkezpen-afaria, bihar, 20:00etan, Aurreran, bideo emanaldia; 22:00etan, afaria, Torrean.

Leitza. Aurrera K.E. futbol taldearen omenaldia zendutako jokalariei, bihar, 17:00etan, omenaldi ekitaldia; 17:30ean, hiru belaunaldien arteko partida; 21:30ean, herri afaria.

Lizartza. Etxerat-ek deitutako manifestazioa, 20:00etan, Haimar Altuna preso politikoa lizartzararen egoera salatuz. 22:00etan, Meaux-erako (han dago preso Altuna) autobusa irtengo da, Tolosako Triangulotik.

Tolosa. Literatur Astea Samaniegon; gaur, gurasoek eskainitako ipuin kontaketa.



Luz Ardiden-en izan dira asteburu-pasa

GAZTELU ▶ Eski denboraldia aprobetxatu nahian, Gazteluko hainbat haur, gazte eta heldu (27 lagun inguru) Luz Ardiden-en izan dira. «Gustura» dira asteburuak utzitakoarekin: «Giro ezin hobea izan zen gure artean, bai pistetan bai pistetatik kanpo. Asteburu ahaztezin izango da guretzat, eta esperientzia

errepikatzeko irrikitan gaude». Udalari esker eman nahi dizkiote antolatzaileek, «eman digun diru laguntzagatik eta talde eta herri giroa sortzen laguntzen duten hau bezalako ekimenak susatzeagatik». Argazkian, gazteluarak, Luz Ardiden-eko irteeratik etxera itzultzen. HITZA

Tolosaldea. Fedea sendotu eta bakea eskatu lelopean, Arantzazura ibilaldia bihar. Eskualdetik hara joateko autobus antolatuta dituzte. Izena emateko Tolosaldeko parrokiatar jo behar da.

Villabona. VII. Amodiozko Gutun Lehiaketa. Lanak udaletxean entregatu behar dira, Euskara Batzordean; hilaren 23a izango da horretarako azken eguna.

Villabona. Herritar guztiei zabalduko bilkura deitu du Batasunak egoera berria aztertzeko. Bihar, 10:30ean, Gurea zineman.

ERAKUSKETAK

Alegia. Jesus Lopez Zulueta margolanak. Hilaren 22ra arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.

Tolosa. De rebeldia y poesia. Angela Mejias eta Antonio di Bellonio artisten argazkiak. Gaur zabalduko ditu ateak, 19:30ean, Aranburu Jauregian. Maiatzaren 5a arte izango da bertan ikusgai.

Tolosa. Poesia movil. Enrique Zalduaren margolanak erakusketak. Hilaren 22ra arte ikusgai, Aranburu Jauregian.

Tolosa. Azala. Joseba Mercaderren argazkiak.

Hilabete osoan ikusgai, Lanbroa tabernan.

Tolosa. Emakumea hezitzea herria hezitzea da izeneko erakusketa, Hirukide Jesuitinaren ikastetxean, 17:00etatik 18:30era. Brasilgo kaleko haur eta gazteentzako formazio zentro baterako laguntza jasotzeko kanpainaren barruan.

HITZALDIK

Tolosa. Santa Maria parrokian Garizumako hitzaldiak, euskaraz. Emilio Sotomayor eskolapioa izango

da hizlaria bi hitzordutan: 16:30etan eta 20:00etan.

MUSIKA

Tolosa. Xabier Zeberio tolosarra kide den Alos Quartet hari laukoteak kontzertua emango du. 20:00etan, Aranburu Jauregian.

Tolosa. Eduardo Mokoroa tolosarraren eta Josef Gabriel Rheinbergerren lanak joko ditu Tolosako Musika Eskolako Arimaz kamera orkestrak, Kepa Martinez de Albenizen zuzendaritzapean. 20:30ean, Santa Klara elizan.

Tolosa. J&K eta Desordutan taldeen kontzertua. 22:30ean, Bonberenean.

Tolosa. Musika Bandaren eta dultzainarien kontzertua, bihar, 19:00etan, musikariak, dultzainariak, erraldoiak eta buruhandiak kalejiran abiatuko dira, Triangulotik Plaza Berriraino. Han izango da entzungai kontzertua, 19:30etan.

Villabona. Joseba Tapia musikariaren *Real Politik*. 22:30ean, Gurea aretoan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Azpiroz, M. L. Amaroz auzoa, 9. 943 67 51 18.

IRRATIA

Txolarre irrateria (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepaosa, agenda, elkarrizketak, albisteak, lehiaketa, disko eskainiak...
19:00-21:00. Tolosaldeko ahotsa (erreplikapena).
21:00-22:00. Zaharrak berri, Hala Bedi irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
22:00-23:00. Arkako show musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Gaizka Goya. Gaur 10 urte. Zorionak zure urtebetetzean etxekoan partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberrriak...